

CONFINT

Juan Orobiogoitiako ikasleak Euskadiko Confint-etik Bartzelonara

2014ko Martxoak 13, Juan Orobiogoitiako ikasleek, eskolako Confint-a egin genuen. CONFINTean 3, DBH-ko ikasle guztiak hartu genuen parte, ingurumen tailerreko ikasleak antolatua.

Bertan bi ardura aukeratu genituen: **uraren kutsadura murriztea** eta **ingurumena zaintzea**. Ardura hauek betetzeko, guztion artean egin beharreko ekintza batzuk adostu genituen.

- Uraren ekintzak betetzeko, ikastetxeko txorrotetan bridak jarri genituen eta sarrerako monitorean bideo bat jarri genuen uraren kutsadurari buruz kontzientziatzeko.
- Ingurunea zaintzeko adostutako ekintzak ziren, kartelak egitea eta herritik zehar jartzea. Baita ere, institutuko esparrua garbitu genuen. Ekintzak egiteko 3. DBH-ko ikasle boluntarioak eskatu genituen CONFINTean.

Ekintzaren bukaeran guztien artean lau boluntario eskatu genituen, Busturian, apirilaren 2an ospatuko zen Confinterako. Baita ere, ikasle batek ekoliderra izateko bere burua eskaini zuen. Ekoliderrak, beste zortzi ikastetxerekin batera, Busturian egindako CONFINTa aurkeztu zuen. Ane ekoliderra izan zen, Emma, Iker, Xabier eta Alex ordezkariak. Busturian lan asko egin genuen eta ikastetxean egin genuen Dazibaoa eta Fotonobela aurkeztu genituen.

Confintean 19 ikastetxek parte hartu genuen. Bukatutakoan, ikastetxe bakoitzak beste hiru ikastetxe hautatu behar izan genituen Bartzelonara joateko. Euskaditik Bartzelonara guztira 7 ikastetxe joango dira eta ikastetxe bakoitzetik 3 ikasle.

7 ikastetxe horietatik gu hautatuak izan ginen. Euskaditik 21 ikasle joango gara guztira, Espainia osotik 120 ikasle batuko gara gutxi gorabehera: Kanariar irletatik, Galiziatik, Madriletik, Cataluinitik... Juan Orobiogoitia ordezkatzen, **Ane**, **Iker** eta **Emma** joango gara. Hiruron artean ahal dugun guztia egingo dugu, ingurumena zaintzeko. Bartzelonan hautatukoak Bruselasera joango dira eta Bruselasen hautatukoak, Rio de Janeiroko Confint mundialera. Bertan munduko ikasle asko bilduko dira gure planeta zaintzeko. Eta Martin Luther King-ek esan zuen bezala "Si supiera que el mundo se ha de acabar mañana, yo hoy aún plantaría un árbol."